

IPAR ALDEKO POETA ZENBAIT

Jean-Louis Davant

AURKIBIDEA

	Or.
1. Bernard ETXEPARE-koa (1545)	243
2. Bernard GAZTELUZAR (1619-1701)	245
3. Joanes ETXEBERRI (1637 edo 38-an hila)	245
4. Arnault OIHENARTE-koa (1592-1667)	247
5. Beñat Mardo (XVIII. mendekoa)	248
6. Salvat MONHO (1749-1821)	249
7. J. B. ELISSAMBURU; ELIZANBURU (1828-1891)	250
8. Pierre TOPET, ETXAHUN BARKOXE (1786-1862)	252
9. Gratien ADEMA, ZALDUBY (1828-1907)	253
10. Ferrando AIRE, XALBADOR (1920-1976)	254
11. Pierre BORDAÇARRE, ETXAHUN IRURI (1908-1979)	256
12. Eñaut ETCHAMENDY (1935)	257
13. Jules MOULIER, OXOBI (1888-1958)	258
14. Jon MIRANDE (1925-1972)	259
15. Xavier DIHARCE, IRATZEDER (1920)	259
16. Mañex ERDOCAINCY-ETCHART (1934-1984).....	260
17. Jon CASENAVE (1958)	261
18. Itxaro BORDA (1958)	262
19. Manex LANATHOUA (1943)	263
20. Auxtin ZAMORA (1943)	264
21. Jean-Louis DAVANT-IRATÇABAL (1935)	265
22. HIRUGARREN UHAINA	266
23. BIBLIOGRAFIA	268

Ipar aldean hasi zitzaigun euskal literatura idatzia, eta hain zuzen ere, olerkiarekin hasi.

Bi mail aurki ditirogu poesian: bat herrikoia, bestea goi-mailekoa. Bigarrenez ariko natzaizue gehienik hemen, bestea ere bizkitartean aipatuz apur bat, harreman dialektikorrak baitituzte biek elgarrekin. Adibidez, uka ezina da GOETHE baten baladak herri kulturari zor diona. Alderantziz ezin ahantzia, bereziki Euskal-Herrian, jende xeheen olerkigintzan, aristokraziaren eragina: Aiherra Beltzuntzeko jaun baten abestia hor dugu lekuko, apaizen lanak ere ahantzi gabe.

Ahozko literatura herrikoi bat aberatsa badugu Euskaldunek, bereziki olerkian, kantuari eta bertsularitzari esker. Baina ezin gara horretan gelditu. Humusak ere liliak nahi ditu, sustraien oihi eta kantu. Beraz goi-maileko poemagintza bat ardietsi nahiz ari izan dira eten gabe gure aintzinekoak: gorapen eta garapen horiek ditut hemen erakutsi nahi.

Bestalde badakigu sail desberdinak ediren ditirogula poesian: epika, satira, didaktika, lirika... Baina gutiz gehienetan bat ikusten dira poesia eta lirika. Beste eskualdeak ukatu gabe, atzean utziko ditut, joera nagusi hori errespeta-tuz nik ere.

HASTAPENAK: ETXEPARE (1545)

1545-ean agertu zen Bernat ETXEPARE-koaren liburua, euskaraz inprimatu den lehena ornen, berak hala baitio eta zaharragorik ez baita oraindino ediren: “Linguae Vasconum Primitiae”, hots euskararen hastapenak. Hastapen ederrak egiazki, ezen euskal olerki sorta ederrenetarik dela uste dugu gaur.

Herrikoiak baldin baditu erroak eta sustraiak, lore gorenak ere dakartza, PETRARCA-ren ildotik. Emakumearen maitasun ederra ederki du kantatzen Eihalarreko erretorak, geroztik galdu zitzaigun feminismo ausart batez horni-

tua. Musa profanoa eta dibinoa, biak batera ohoratu ditu Etxeparek bere poema liburuan, euskara plazaratuz ber denboran Garaziko herritik.

AMOROS SEKRETUKI DENA

Andre eder jentil batek bihotza daut ebatsi;
Hartzaz orhit nadinian, deus ere ezin iretsi.
Nik hura nola, nahi nuke hark banentza honetsi.
Ezin benturatuz nago beldur, dakion gaitzi.

¡Mirail bat nik ahal banu hala luyen donoa
Neure gogoa nerakutson sekretuki han barna,
Han berian nik nakusen harena ere nigana,
Hutsik ezin egin nezan behin ere hargana!

Ene gaizki penatzeko hain ederrik sortu zen.
Gaoaz eta egunaz ere gaizki nizi penatzen.
Harekila bat banadi, bihotza zait harritzen;
Neure penen erraitera are eniz ausartzen.

Ene gogoa baliaki, maite bide ninduke;
Ni errege balin banintz, erregina litate.
Hura hala nahi balitz, elgarreki ginate;
Haren haurrak eta eniak aurride oso lirata.

Balinetan nik banerro hari neure bihotza,
Eta gero balin balit respuesta bortitza,
Dardoak bano lehen liro erdira ene bihotza;
Duda gabe eror nainde han berian hilhotza.

Artizarrak bertzetarik abantaila darama;
Halaber da anderetan ni penatzen nuyena.
Hanbat da eder eta jentil, hartzaz erho narama.
Zorihonian sortu date haren besoan datzana.

Ene gogoa nola baita zuzen iarri hargana,
Haren'ere langoikoak dakarrela nigana,
Ene pena sar dakion bihotzian barrena,
Gogo honez egin dazan desiratzen dudana.

XVII. MENDEA

Euskal letren mende ospetsu horretan, Musa profanoa ixilaraziko du Musa dibinoak, bi ziburutar apaizi esker: bata da ETXEBERRI, bestea GAZ-TELUZAR. Entzun dezagun lehenik azken hau, ideologi berria baitigu aitortzen.

Bernard GAZTELUZAR (1619-1701)

LITERATUR TEXTUA: INKARNAZIONEA

- | | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. Urrun hadi, Parnaseko
Musa zahar profanoa;
Eta zu zato zeruko
Musa berri divinoa.</p> | <p>4. Errazu, zeruko Musa,
Nola erdi den Birjina.
Nola duen Jainko Haurrak
Izatu lehen eguna.</p> |
| <p>2. Jesu-Kristo gure Jauna
Ekhar bezate bihotzek;
Ithurriek ur saindua,
Fruitu bizi Haritzek.</p> | <p>5. Errazu nola egiñ den
Gizon, zeruko Jainkoa;
Eta nola Jainko egin
Gizon gu bezalakoa.</p> |
| <p>3. Adio Phebus! Hire etxe,
Hire itsaso guztia
Etzarete aski hiltzeko
Ene egarri handia.</p> | <p>6. Nola Dabiden kastatik
Gizon egin den munduan
Egun daiñotik Jaun goiko
Izatu zena Zeruan</p> |

Joanes ETXEBERRI (1637 edo 38-an hila)

Bere aldetik oso interesgarria zaigu Etxeberri, Axularren laguna Sarako eskolan, ezen diosku zer gatik bertsutan idazten duen:

“Gristinoa, eman diat eskarazko bertsutan
Katoliko manuala neure asti-ordutan.
Ikusirik, nola bainaiz iaiotzez eskalduna,
Gure nazioa dela koplamaite duena,
hartarakotz iakiaraz diat bertszuz ezarri:
lasterrago ikhas eta paizago aiphagarri.”

Hara zer dioen “Manual Devozionezcoa” delako liburua. Eta beste hau ere diosku berean:

“Ezen, dakusun bezala,
eskaldunak, zaharrek,
kanten maitatzaille deithu
zituzten erromarrek.”

Alta bada, Oihenarte-ren eritziz, bertsutan baino trebeagoa zen hitz lauz, baina prosazko lanik ez diogu hanbat ezagutzen.

Famatuak dirade, aldiz, haren NOELAK, eta bereziki hau, Eguberri gauan abesten duguna:

LITERATUR TEXTUA: O EGUBERRI GAUA

O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua:
allegeratzen duzu
bihotzean kristaua.

Gau illhunean ezta
egeri iguzkirik:
hunetan dakusagu
mirakuluz ilkhirik.

Mundu guztia duzu
zorionez bethetzen:
zergatik baitiozu
Salbatzaillea ekhartzen.

O gau desiratua,
zuzia duzu piztu,
zeñak mundu guztia
behar baitu argia.

Argizagiak dire
bozkarioz dantzatzen,
ohi baño dutela
gehiago argitzen.

Gauza guztiak dire
gau hunetan pagutzen:
orobat egitera
gaituzte gonbidatzen.

Aingeru onak berriz
hasi dire kantatzen,
tristeak dituztela
boztera gonbidatzen.

Ifernuko oztea
ordean da tristetzen,
haren zentzatzaillea
zerengatik den sortzen.

Errepikatzen dute
maniurez artzainek,
aradari lehiaz
ihardesten larrainek.

Idolak aldaretan
betan dire mututu:
aztiak arzozoina
miretsirik galdetu.

Engadin mahastia
gau hontan zen loratu,
Erroman olioizko
ithurburua sorthu.

Berzerik eztao
deus ere ihardetsi,
haur batek dituela
baizen ixillarazi.

Arrañak ere iauzi
ziren paguz (1) urean:
abreak basoan eta
egaztiñak airean.

Ixildu behar zuten,
guk ordainez kantatu,
Zori onean dela
Jainko-Semea sorthu.

(*Noelak* liburutik, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones 1970, 54-55 or.).

Gazteluzarrek baino fama handiagoa du Etxeberri. Alta bada iduri luke lehena hobetzat ekartzen duela Pierre LAFITTE zenak: “Etxeberri oparoagoa, handitasun handiagokoa; alderantziz Gazteluzar finagoa, dotoreagoa, garbiga, ritmo hobeagoa... XVII. mendean izan den poeta finena”.

Baina jesuista zen Gazteluzar eta egundaino ez da ipar alde hunetan kokatu ahal izan Jesusen Lagundia, Jansenismoaren lurra baitugu hau, Duvergier de Haurrane Baionesari esker.

Dena dela, aro berri baten lekuko ditugu bi ziburutar apaizak. Trentako Kontzilioak markaturiko bidetik, Protestaten aurkako gudukan gogortu da Eliza katolikoa, jansenismoz kutsatua gainera doktrina ilun eta ezezkor haren sor leku hunetan. Agur beraz Musa profanoa!

Arnaut OIHENARTE (1592-1667)

Alta bada, poeta profano bat badugu hor, Oihenarte mauletar abokatua. Olerkari fin, aratz, artetsu, adelia, lan konplikatu, aberats eta zehatzen artalea. Bere aurka du har gatik hoztasun handi bat eta jarraikilerik ez duke gure menderaino. Baina gaur poeta handitzat hartzen dute gazte batzuek, pixka bat GONGORA bezala... Barka bekit etsenplu handi hori. Baina ber arokoak dira biak, poesia zail eta trinko baten ehuleak, eta ber beherapen luzearen ondotik, berriz argira datozkigu abantxu betan.

JOANAREN BETHEGINZARREA

Haren izena Joana,
ez ote gaizki emana?
Ezi orai heldu dena
nola lizate joana?

Gero ahurtz-araldea
potarentzat lardea,
ezt'igeltsu, ezta zilar,
bana kristal-ordea.

Haren gorputz lerdena
da nik dudan maitena;
baitare gerri hersiz
orotako lehena.

Aldiz bi beharriak
xuri miragarriak
saldoa maitariri
gorheritan jarriak.

Haren ahorpegia
zer? Baderragu egia
zer derrakegu dela
baizik izartegia?

Oi, zerik du sudurra!
Ez egi', ez apurra;
xorhi, begi hont-garri,
hala hala muturra.

Lehenik bekokia
moldeak idokia
iduri, iguzkiareki
argiz ihardukia.

Ezpainak, arros'orri
gorriak bezain gorri:
hartzak aitzintzen, xuriz,
ezein ezne isurkorri.

(Oihenarte, *Atsotitzak eta neurtitzak*. Irakur Sail, 170-172).

BIBLIOGRAFIA

Oihenarte, *Atsotitzak eta neurtitzak*. Irakur Sail. Donostia, 1971. Argitalpen prestatzailea, Larresoro.

XVIII. MENDEA

Mende horretan beherapen handia ezagutzen du ipar aldeko literaturak, eta bereziki olerkiak. Gure kaltetan izan zen Utrechteko tratua ondotik Lapurdiko arraintzak ezagutu zuen egoera larria, Ternuako bideak hetsirik gertatu baitzizkion (1713).

Poesia profanoaren aurka izan zen berriz oixtion aipatu dutan eraso. Ber denboran bukatu zen katoliko eta protestanten arteko lehiaketa, oso nagusi gelditu baitzen eliza. Gainera olerkiak Frantzia eta Espainako erresumetan ezagutu zuen itzaluneak ere izan zukeen eragin bat Euskal-Herrian.

Hemeretzigarren mendea, filosofoena izan zen hemen ere, LARRAMENDI, Joanes ETXEBERRI Sarako medikua eta Jujef EGIATEGI zuberotar erakaslearekin.

Hala ere, abestian halako loratze bat izan zen, Frantziko baratzetik etorria, Txomin PEILLEN-ek erakutsi digun bezala, nahiz anonimoa den olerkigintza hori eta ez goi-mailekoa.

Segurki, izen handi bat ezagutzen dugu hor, beñat MARDO bertsulariarena, ezagutzen dugun zaharrenetakoa. Baina, hain zuzen ere, bertsularia zen barkoxtar famatu hori, beraz aho-mihizkoa, ez idazlea. Augustin XAHO atarrastarrak ondoko mendean dioskunaz, errextasun izigarria zuen Mardok, noiz nahi bertsutan hasten zen eta hogeitaz liburutan ez omen ziren edenen haren obra nasai eta oparoak. Zoritxarrez mañetofoirik ez zen denbora hartan eta ez zaizkigu gelditzen Mardoren hiru lan baizik.

Ezaguna zaigu lehena, “Ni deitzen nük Beñat Mardo, Barkoxe Basabilako”; ez zaigu arrotza bigarrena, alfer gazte baten eta ñapur zahar baten arteko solasaldia. Huna hirugarrena, Pierre NARBAITZ-ek eta Louis DASSANCE zenduek argitara ekarria:

Garrüzeko jainak plazer badüzie
Kobla bat intzün eta joaiten ziraie.
Andere Margaritaz soein ükhazie.
Gü debeiatü gabe eroaiten düzie.

Zeliz ordenatia lürrian gerthatzen
Egiazko plazerak handik dira jiten.
Gure desir güziak ditügü jüntatzen.
Zien projet orotan benedika zitzaien.

Andere Margarita othoi ohar zite
Eztezazüla ahantz sekülan Barkoxe.
Agradatüren zaizü segürgi Garrüze
Eta züre ikhüstia guri izanen lüze.

Laugarren bertsu bat emaiten dio... frantsesez! Bere zuberuera hor amikuztartzen du Mardok. Eskualde horretan ibiltzeko ohitura ba ote zuen?

Dassance zenari esker, badakigu noizkoak diren bertsu horiek: 1769-an ospatu baitziren Barkoxtarrak aipu dituen ezteiak: Théophile de BERDECO, garruztar medikuaren, eta Marguerite de Basterretche, barkoxtar anderearen artekoak.

Karia hartara Louis Dassance-k diosku urte zenbait lehenago Arbotin ospatzen zela beste horrelako gertakari handi bat eta behar bada han ere zegoela Beñat Mardó kantari, Zuberotar bati zor baitugu “Arbotiko prima eijerra” delako abestia, Benito LERTXUNDI-ri esker Euskal-Herri osoan ezagutua.

Salvat MONHO (1749-1821)

Bi mendeen juntan dugu isturiztar apaiz hau. Frantziako gobernu iraultzaileak elizari inposaturiko konstituzieari ez ziolako zin egin nahi izan, atzerrian bizi behar izan zuen urte zenbaitez.

Poesia sorta bat utzi digu, Pierre LAFITTE-k liburu batean agertu duena bere oharrekin eta frantses itzulpen batez osotua. Erlijiako gaiez egina da gehien bat. Lirismo urrikoak dira baina erdi-mail batean finkatuak, herri xehearen altxagarri: gustora irrakur ditaizke Monhoren olerkiak.

Gai profanoak ez ditu gutuziatzen har gatik: hala nola “Chanson bachique” batean adiskideak edatera gomitatzen dituelarik, edo “Madame de Belzuntze” bat oso galanki abesten duelarik.

GIZONAREN AZKEN FINAK

Heriotzea

1. Herioak mundu huntan
Ez du nihor gupida:
Monarken palaziotan
Etxoletan bezala
Sartzen da berdin ausartki
Eta haren kolpeak
Badaramatza sotilki
Zahar eta gazteak.
2. Herioaren izenak
Lazten tu gehienak
Eta haren aipamenak
Lotsatzen gaixtaginak.
Kristau onak du kontrarat
Hiltzea desiratzen,
Hilik baizen bizitzerat
Ez baida nihor heltzen.

Jujamendua

3. Zer da lazgarriagorik
Jujamendua baino?
Juje hala argiturik
Izan da egundaino?
Bihotzen pliegu gordeak
Ditu klarki ikusten;
Pentsatu eta eginak,
Hitzak ere pisatzen.
4. Lehen jujamendu hori
Bada hain lazgarria,
Azken jujamenduari
Jinen zaio aldia:
Menden azken egunean
Juje soberanoa
Mundurat jausten denean,
Nork jasan haren soa?

Parabisua

5. Ez du begiak ikusi,
Beharriak aditu,
Izpirituak hain guti
Zer diren konprenitu
Justuentzat Jainko Jaunak
Preparatu saria:
Parabisu-ontasunak
Eta hango gloria.
6. Guziak Errege dire
Zeruko erresuman;
Ez dire beldur batere
Deusek altara detzan.
Desira baino zeruan
Aboro da gozoa;
Hitz batez, parabisuan
Ikusten da Jainkoa.

Infernua

7. Infernua da leize bat
Beti sutan dagoena,
Jaunak aurtiki du harat
Gaitz guzien bilduma.
Han beti dute sofritzen
Esperantzarik gabe:
Deusek ez ditu gutitzen
Tormentak behin ere.
8. Gorputzak eta arimak
Suak ditu erretzen
Bainan surik bortitzenak
Ez ditu konsumatzen.
Gehienik du berretzen
Horien ondikoa
Zer gatik ez den ikusten
Infernuan Jainkoa.

XIX. MENDEA

Euskal-Herrian ere, Erromatismoaren mendea dugu hau, nahiz berant etorri zaiguin uhain hori, eta behar bada jakin gabean.

Mendearen erditsutan agertzen zaigu Mecenas handi bat, Antonio ABADIA URRUSTOI (Antoine d'ABBADIE d'ARRAST), Euskaldun irlandesa. Euskal jaiak antolatu zituen mugaren bi aldeetan, bertsu-paper lehiaketak sustatuz bere diruaz eta aholkuez. Erraiten da bide horretarik goi-mailik ez zuela lortu poesiak. Baina zaletasun bat piztu zuten gutienez Abadiaren sariketek, geroko uztaren humus eta hazi.

Koblakari asko agertu zen euskal jaietan. Bikainenak izan ziren, hego aldetik Felipe ARRESE BEITIA Otxandiokoa eta ipar aldetik Jan-Battitt ELISSAMBURU Sarakoa. Mendeko poeta hoberena dela bigarren hori, hara eritzi nahiko zuhurra. Horren olerki ezagunena da “Nere etxea” edo “Laboraria”, poesia bukoliko baten ikurra. Maitasunezko abestiak ere ondu ditu, bereziki “Apexa eta lorea”, “Maria”, eta abar.

Maria

1.^a

Ber-tyek, er-ran bai-tu-te rikh bai-no le-
 -hen, hai-nitz a-di-tuz de-la hai-nitz i-khas-ten, Mo-
 -te dut on-Don, i-nik za-ki-ten be-ga-la que-
 -zuek ar-ozen ya-kin be-ga-ten, Be-raz ai-
 -pha be-ga-gun ho-a-ri-a nor-Don ;
 Be-raz ai-pha be-ga-gun ho-a-ri-a nor-Don !

2.^a

Aztal biribil eta zangar hertsia,
 Eskuaren beteko zango bihia,
 Tike-ttikia;
 Golkho bat aberatsa, lerdan gerria,
 Erne begia;
 Nolako pampina den horra Maria!

4.^a

Solas alegera bat errana gatik
 Irri frescorik baizen ez dut izan nik
 Maria ganik;
 Adizkidekin ez du handitasunik,
 Bainan hargatik,
 Ez erran Mariari solas arinik!

3.^a

Erle bat da Maria etche barnean,
 Eta landan orobat hari lanean,
 Behar danean
 Aphaintzeco pulliki behin astean,
 Noiz? Igandean;
 Uztai beharrik ez du Soinaren pean.

5.^a

Mariak baratzean badu berea
 Udan eta neguan lorez bethea
 Errekarte;
 Ber loren artean erdi gordea,
 Gacho maitea!
 Bera da pullitena hango lorea!

6.^a

Mariak baldin badu molxa yoria,
 Merkhatura guateco badu saskia,
 Churi-Churia;
 Arroltze lau dotzena, oilasco bia,
 Salduz guzia,
 Zertako den aberax horra Maria!

7.^a

Yendek errana gatik hal'eta hola,
 Maria batzuetan, ez yakin nola,
 Goibel dagola;
 Bertzetan nigartto bay yausten zaiola...
 Zer zaio-achola?
 Baluke nahi balu aise Khonxola!

8.^a

Igandetan Maria zinez pampina,
 Zapata chabalekin soin match urdina,
 Berac egina;
 Elizaco bidean arin arina,
 Mila Sorgina!
 Errege baldin banitz zer Erregina!

Pierre TOPET, ETXAHUN BARKOXE (1786-1862)

Har gatik ez erran Zuberotar xaharrei ez dela Etxahun Barkoxe bere denborako eta betiko poeta hoberena! Ezagunak dira haren obrak eta bizia, bereziki Jean HERITSCHELHAR, Jon ECHAIDE ta Xipri ARBELBIDE-ren liburuei esker. Satirikoa bezain lirikoa zen Etxahun "Xaharra". Huna haren gaztaroko eresi hunkigarri bat.

ÜR X'APHAL BAT

(entre 1805 et 1808)

8.^a

1. Ürx'aphal bat badüğü herrian trixterik,
 Nigarrez ari düzü kaloian barnetik,
 Bere lagün maitiaz beit'izan ützirik:
 Kuntsola ezazie, ziek adixkidik.
2. Oi! ene izatia dolorez betherik!
 Mündian ez ahal da ni bezañ trixterik,
 Ni bezala maitiak traditü dianik,
 Habil Amodiua, hürrün ene ganik.
3. Traditü zütüdala deitazüt erraiten;
 Bata bezañ bestia biak akort ginen,
 Ene bihotza düzü zuri bethi egonen:
 Kitatü behar zütüt lotsaz etxekuen.

4. Oi ene traidoria zer düzü erraiten?
Elhe faltsü erraitez etzireia asetzen?
Ene flakü izanez zira prebalitzen,
Hortarik ageri'zü nunko seme ziren.
5. Maitia nahi zütüt segreki mintzatü,
Arrazuak dereitzüt nahi esplikatü;
Bihotz oroz züntüdan osoki maithatü:
Kitatü behar zütüt, hiltzera nuazü.
6. Thunba bat nahi dizüt lürpian ezarri,
Ene khorpitz trixtia gorde mündiari,
Ene ixter begiak ditian liberti:
Akort izanen zira zü ere haieki.

Gratien ADEMA, ZALDUBY (1828-1907)

Aipatu behar litaizke, bestalde, HIRIBARREN apaiza (Eskaldunak izeneko poema epiko luzearekin), OTXALDE (poeta baino segurrago bertsulari-zirtolaria), Pierres IBARRART, Jose MENDIAGUE Argentinako Hazpandarra, eta bereziki Gratien ADEMA, "ZALDUBY", apaiza. Musa dibinoa eta Musa profanoa, biak ohoratu ditu bertsu zinez landuetan. Hemeretzigarren mendeko maixuetarik dugu, Elissambururi hurbil.

LITERATUR TEXTUAK: AMAXO

Opluarda beltz eta zai ile-gorritan,
neguko egun batez zagon ikuzkitan
emakume xahar bar buruko xuritan,
altzorat alabaren haurra harturikan.

Ana ttikiak dio bere amaxori:
—Nolaz duzu, amaxo, ilea hoin xuri?
—Ikus-azu mendian, haurra, elhur hori:
ene adinak ere negua dirudi.

—Arphegi pollit hori zertako, amaxo,
ez duzu amak bezen legun eta goxo?
—Haurra, urak maldari errekez doatzto:
nigarrek naute egin ni ere hoin atxo.

—Zertako egin nigar, amaxo maitea?
Zure kontsolatzeko ez niza zurea?
—Zertze asko neureez, ai, ene umea,
ikusi dut denboraz etxe hau bethea.

—Amaxo, zein baraxe zu zaren ibiltzen!
Zalhukiago naiz ni ttikitik higitzen..
—Haurra, ni ere lehen, zu bezala nintzen..
Urthe soberek, naute orai dorphegitzen.

—Bizitzen balin banaiz zu bezenbat urthe,
amaxo, zu bezala izanen naiz othe?

—Haurra, zenbat munduan luzez bizi uste,
menturazko agintza beizik ez baitute...

—Jainko maiteak bethi? amaxo, zertako
ez gaitu elgarrekin biziartziko?

—Bizi huntaz bertzeri, haurra, guretako
badagoka hoberik, eta sekulako.

—Ai, amaxo, biak gu bagine zeruan!

Ai... zer dut nik? Eri naiz... Ai, min dut buruan!

—Haurra, goazen barnera; hobeko digu han:
xakurra pleinuz dago gure inguruan...

Handik bi aste gabe bi gorphutz elizan
etxe hartarik ziren ekharririk izan,
eta bien arimak zeruan zabiltzan
lurreko gaitzetarik bethikotz gerizan.

(*Encicl. General Ilustrada del País Vasco*. Literatura I, 158-159).

HOGEI GARREN MENDEA

Non kokatu behar dut Jean BARBIER Donibane-Garazikoa (1875-1931), Senperen erretor egona, oroz gainetik prosalaria, baina 81 kanturen idazlea? Kasik ehun bat abesti: ez otoi gutiz utz! Ezin nuen aipatu gabe utzi.

Prosulariak halaber Pierre LAFITTE eta Pierre LARZABAL, berriki zenduak, baina denetako gai ziren eta denetarik egin dute, poesian eta kantuan ere eskua sartuz, maixuki gainera! Horretaz inor ez da harrituko. Zituzten dohainekin, zer egingen genuen besteek, olerkiari eman balira?

Hemeretzigarren erromantikoen ildotik, ezin baztertuak ditugu bi olerkari, literatura herrikoia ren hegian: ETXAHUN Irurikoa eta XALBADOR zenduak, bertsularitzatik etorriak.

Ez uste izan bertsularitza gutiesten dudarik: ihondik ere ez! Baina beste zerbait da aho-mihizko hori: literatura idatziaz ari naiz hemen. Xalbador zenak zioen bezala: luma hartuz geroz, behar den denbora guziarekin, beste zerbait egin dezagun! Beste zerbait horretan ere eskua sartu zuen berak, eta ederki!

XALBADOR, Ferrando AIRE (1920-1976)

Nahiz bertsularien ohizko bertsuetan idatzi duen, zortziko handian, lau errima berdinekin, gai eta mamiaren aldetik ohizko irrifar, trufa, zentzu on laburra eta jaunen lausengatzea gainditzen ditu Xalbadorrek: egiazko lirikara igaiten da, sendimenduak sakonki aztertuz eta irudi ahaltsuak azalduz.

Lumaz nekezago ari zen MATTIN Treku Aheztarra, Xalbadorren adiskide mina, aho-mihiz hain bipila: berak ere hala zioen. Poeta baino segurrago zirtolaria, umorez eta ironiaz aberatsa, hortako publikoaz oso maitatua. Bertso-paperetan ari zaigu haren alarguntsa, Maddi.

ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA



1. Amodioa gauza tristea, bihotzen higatzailea,
guziz enea bezala bada esperantzarik gabea.
Gizonarentzat hau baino malur handiagorik badea?
Ikusten eta ezin eskura maitatzen duen lorea!...
Hunela bizi baino aunitzez hobe litaik e hiltzea!
2. O, Jainko ona, zendako bada egin nauzu hoin maluros,
begien bixtan izar eder bat ezarri dautazulakotz,
ikus orduko maite nuena nik ditutan indar oroz?
Harek ordainez ez du enetzat ez begi eta ez bihotz...
Nehoz ikusi izan ez banu hobeko nuen ondikotz!

3. Oi, ene maite ezin ukana, zoin zaren xarmegarria!
Maite dut zure begitartea, maite zure boz ezia,
halaber zure irri gozoa, zure izaute guzia;
zuretzat baizik ez dut begirik, zare ene iguzkia,
gau eta egun zuri pentsatzen deramat ene bizia.
4. Martxoko hormak galduko duen lore pollit goiztiarra,
ta eihartzerat bortxatua den aizeak hautsi abarra;
ene bihotza ez daitaika gauza horier konpara?
Nehoz enea ez da izanen maitatzen dutan izarra,
hortaz oroitzuz maiz etortzen zaut nigarra begietara.
5. Aitortzen dautzut, ene maitea, goiz aski banakiela
etzintaizkela enea izan, bertze batentzat zinela;
bainan halere maitatu zaitut, ez bainezaken bertzela;
ene bihotza, bizi naizeno, izanen zaizu fidela,
zuretzat bizi ez banitaike, zuretzat hil nadiela!

Pierre BORDAÇARRE, ETXAHUN IRURI (1908-1979)

Zaharretik oraikora eta bertsularitzatik olerkira beste bitarteko bat, zubi egile, Etxahun Iruri, “Agur Ziberoa” famatuaren aita, aire ta doinu hunkigarrien asmatzailea, kantu berriaren igarle bezala ikusten dut.

Ez dut hargatik ahazten LIGUEIX Larraintarra, gazterik zendua: Etxahunen erakaslea bertsugintzan, aho-mihiz huni nagusi ornen zen. Beñat Mardorena bezala, galdu da haren obra edo guti eskas. Guti du idatzi, baina oso zehazki: alde horretarik Etxahun Barkoxe bezain perfeita da, Etxahun Iruri ez bezala, ikus adibidez haren “Boneta eta txapela”. Olerki aldetik, ezteietan beti abesten dugu haren “Espus-espusena”.

Hizkuntza eta teknikaren aldetik errextasunean murgildurik badabilia ere Iruriko poeta, Iparragirre bezala, sendimenduz oso aberatsa da, hunen antzo. Huna haren lehenbiziko kantoretarik bat:

GOIZIAN ARGI HASTIAN

Goizian argi hastian, ene leiho hegian
Txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.
Txori eijerra, hain alagera, entzüten haidanian,
Ene bihotzeko tristüra laster duak aidian.

Ene txoririk maitena, zeren jin hiz nigana,
Iratzarrazi naik nialarik ametsik eijerrena.
Jinik hain goizik uste hian hik baniala hanitx pena;
Ez ez, abil kontsolatzera malerusago dena.

Txorittua juan düzü, ta ez arra agertü,
Dolütan niz ote zaionez nik errana gaitzitü.
Goiz güzietan, ene kanberan, trixterik niz haidürü,
Nahiz haren aire xarmant bat berriz ere behatü.

KANTU BERRIA

Kantu berriak azken hogei urte hauetan, herri olerkia berpiztuko du eta goi-maileko poesiari ate bat idekiko dio. Hor aintzindari ditugu, alde batetik Xabier LETE, bestetik Eñaut ETCHAMENDY (1935). Lete baino lehen ere hasi zitzaigun hau, baina giroa ipar aldean ez genuen hego aldean bezain beroa: beraz hemen denbora gehiago behar izan du kantu berriak hedatzeko. Hargatik lehena izan zen Michel LABEGUERIE zena.

Jarraikileak ere hor daude, ber bidetik dabiltzanak urte zenbait gutiagorekin, bereziki Manex PAGOLA eta Beñat SARASOLA.

Eta gazteagoak datozkigu, hala nola Niko ETXART eta Robert “Pipas” LARRANDABURU zuberotarrak, baina denak ezin aipa hemen...

Bestalde non koka Roger IDIART apaiza, Azkaingo semea, zuberotar berria?

LEKEITIOKO OTOITZA

Atalaia bat dautzut eginen
 Atalaia bat han Goizerrian
 Ekiak ditzan zure begien
 Nigar guziak idor agian
 Biek iragan bide luzeen
 Pausagi gordezko jauregian

Atalaia bat dautzut eginen
 Harri gorriez mendi gainean
 Gau egun zaitut begiraturen
 Gure biziko amodioan.

Arbola bat han dut landaturen
 Arbola bat bai zure atean
 Haizea kantuz han ar dadien
 Ez zaiten egon dolamenian

Oihanetako xori ederren
 Egoitzak sar zitza bozkarioan

Arbola bat han dut landaturen
 Liliz jantzirik zure aldian
 Ene arima dut hedaturen
 Irets nezazun lili-hatsian.

Atalaia bat dautzut eginen
 Harri gorriez mendi gainian
 Gau egun zaitut begiraturen
 Gure biziko amodioan.

Etxamendi Larralde

LEHEN UHAINA

Goi-maileko poesian aintzindari ditugu, ipar aldetik, OXOBI, MIRANDE eta IRATZEDER.

Jules MOULIER, OXOBI (1888-1958)

Oxobi apaiza, alegilari bezala dugu ezagunenik: eta segur, alegietan ere sartzan du bere poesia. La Fontaine-ren ildotik ibilia gatik, piztiak eta azindak zinez euskalduntzen ditu eta oso bere gisara biziarratzen.

Baina lirikan ere ari izan da, ene ustez alegietan bezain maixuki. Berrizalea izan da, hizkuntza jori baten lantzale agertuz, ez-ohizko formak erabiliz, hala nola Kanboko herriari eman dizkion bi soneto hauetan.

A

KANBO... UDAZKENRRATSALDE BATEZ

I

Urtsu mendiko maldak, gorriz aphaindurik,
Iguzki gozoari dir-dir badagozi...
Ardiak lerro-lerro, luzaz alhaturik,
Gau etsaiaren ihes bordara doazi.

Choratua bazterrer beha nago chutik.
Zorigaitzik badenetz ere dut ahantzi
... Iguzkiak, emeki jaustean zerutik,
Eskainiz azken garra, derasa goraintzi.

Ostoa gorri dute gazten haitztegiek:
Urhezkoak direla daukate begiek.
—Kanbon da laketurik jartzen udazkena!

Haizeak dakarzkigu hasperen eztiak;
Bulharrak bethe nahiz dabilta eriak.
—Eskual baratzeetan Kanbo da lehena.

II

Anjelus hedaturik gaur azken aldikotz,
Oraichet ichildu da dorrean izkila...
Gaua jautsi denean, ez bero ez ta hotz;
Haize hegoak dauka epheltsu hazila.

Chakur batek hau! hau!-ka piztuz gau ichila,
Erakutsi nahi du baduela bihotz.
Bere dituen gauzak oso beiratzekotz
Ohoina beraz handik urrun joan dadila!

Haur,...aberekin orai etchera nindoan...
Behiez orhoitu-ta, jarri nahiz leihoan:
Et dut entzun joaren chilintch on arina!

... Jendeak aireketa zabiltzan kanpoan,
Heien ahotik hitz bat eskuaraz etzoan...
Zorigaitz! Kanbo-raino hiria da jina!

Jon MIRANDE (1925-1972)

Iraultzaleena, Jon MIRANDE dugu, Parisko Zuberotarra: gaien, formaren, hizkuntzaren aldetik, olerkari zorrotz eta fina. Arrazoina eta sendimendua gaindituz, irudimenari eta ausartziari ateak idekitzen ditu zabalik, eta bide beraz euskara batuari.

ERESI XVI

Aineza gal bizia goiz batez
iskilludun, ixil eta zutik
guduz hilda lur zar honen maitez
mendietan, etsaien eskutik.

Aininderor gaztaroan, nerau
ikurrinik et'ikurrik gabe,
ezpainetan othoitzik ez, birau-
itzalik ez, baikor, ez herabe.

Ainitza gal hats, arima, odol,
heuretako, nire jainko eidol
maitea, Lur! mendi-gudu baten.

eguzkiek, inguruz inguru,
ene soin haur, berriz sor haiduru
hiretan lo, garrez jo lezaten.

Bigarren argitaraldia "Euzko-Gogoa"n 1951.eko 9-10 zenbakian, 4. horrialdean, Guatemalan, egin zen. Hor 1951an agertzen da datatua.

Xabier DIHARCE, IRATZEDER (1920)

Formaren aldetik tradizionalagoa dugu Iratzeder beneditarra, lapurtera eder eta gozo baten jabea. Familia, itsasoa, herria eta Jainkoa ditu gaiak. Goiko mail bat aurkitu du Belokeko gain hartarik. Sendimenduz eta sinboloz aberatsa, mistiko bat da. Afrikara berriki joana misiolari, gazte bat bezala, ez zaigu agian ixilduko.

ITSASOAN

Itsasoan, itsasoan,
Uhain zabal zoroan,
Urrunerat itsasoan.
Zurekin maiz nindoan.

Ez zen han neurririk.
Ez zen han mugarik.
Zu kapitain, ni lemazain,
Ez zen han gu bezain
Bihotzez alairik.

Urrunerat itsasoan
Zurekin maiz nindoan.

Ai! Hango solasak,
Kantuak, ametsak!
Uhain zoro, amodioz
Betez han betikotz
Elgarren bihotzak.

Itsasoan, itsasoan,
Uhain zabal zoroan...

Geroztik nun gaude?
Zu hezur, ni fraide:
Zu zeruan, ni munduan,
Biak bat kantuan,
Eskualdunen alde.

Itsasoan; itsasoan...
Jainkoaren itsasoan,
Bozkario zabal eta osoan.

Iratzeder

UHAIN BERRIA**Manex ERDOZAINZI-ETXART** (1934-1984)

Uhain berriko lehena, goizik joan zaigu Ibarlako semea, Donapaualeko frantziskotar ezaguna. Jainkoa eta herria zituen gaiak, baina bide iraultzaile batetik. Mail herrikoiago batetik ibili nahi zen, herri xeheari mintzatzea gatik. Bertsu librean idazten zuen, olerkia ez zela hain nekea erakusteko, edonork idatz zezakeela beraz. Gazterian arrakasta handia zuen.

GUKE ETXEGIBELEKO HARITZA

Noizez gero landatua hintzen
 Gure etxekoetan nihork ez zezaken erran.
 Zenbat belaualdi sortzen, pasatzen eta joaten
 Ikusi hintuen hire enbor inguruan eta
 Hire adar lodi zabalen itzalean
 Gure etxekoetan nihork ez zezaken erran.
 Ez eta ere zenbat ekaitz, haize bolada,
 Harri erauntsi gaixto jasan eta garaitu hintuen
 Gure etxekoetan nihork ez zezaken kunda.

Aita zenak bakarrik zioian
 Gure etxea hondatzetik
 Anitz aldiz salbatu huela...
 Gure etxegibeleko haritza
 Gure haur denborako josteta, irri eta nigarren
 Lekuko ixila
 Eta gure ametsen
 Hazle emankorra
 Gure eremua
 Gure sor lekua
 Nola ahantziko diagu hire besoen segurantzia
 Hire neurrien oparotasuna
 Gora eta zabal
 Menditik hiri begira
 Xoratuak
 Ixil-ixila egoten ginelarik, ixil-ixila
 Hiri begira
 Hi, gure amets iheskorren ohantzea
 Nola ahantziko haitugu?

Zeren
 Egun batez
 Beren gogoaren kontra
 Eta gure bihotzaren kontra
 Gure etxeokok
 Ebaki* hinduten
 Eta erori hintzen
 Ohorezki eta ixil-ixila
 Erori hintzen lurrera.
 Hiaurekin eraman huen
 Ohorezki eta ixil-ixila
 Gure etxondoan sortu eta itzali
 Balaunaldien* historia luzea eta urratua!
 Eta ixil-ixila, umilki
 Taula pollitak, sanoak, eman hintuen
 Eta plegatu hintzen
 Etxebarneko zoladuretan*
 Intziri bat gabe plegatu hintzen
 Taula polliten neurrira
 Eta galdu diagu betikotz
 Gure begien bistatik
 Hire neurri bizien oparotasuna*!

 Amak
 Hire heriotzea
 Kondatu zidalarik
 Polliki, ez nezan sobera minar,
 Hitzak hautatuz
 Umilki kondatu zidalarik
 Hire heriotzea nola gertatu zen...
 Nigar egin nian
 Hik utzi leku hutsari begira!

Jainkoari eskerrak, ez da hor bukatu ipar aldeko olerkigintza. Izen berri batzu baditugu eta bere harria dakar uhain berri horrek. Gizakiaren kezka guziak ikertu nahi ditu, bai pertsonalak, bai gizartekoak. Erritmo eta forma berriak bilatzen ditu, mundu zabaleko poemagintza ere aztertzen du, olerkikariko gaiago daitaiken hizkuntza bat lantzen, eskola guziak ahalaz beretuz eta gaudituz: sinbolismoa, surrealismoa, errealismoa, eta abar...

Izen bikainenak, poema liburu bat bederen agertu dutenak aipatuz: Jon CASENAVE, Itxaro BORDA, Manex LANATHUA, J. L. DAVANT, Auxtin ZAMORA.

Jon CASENAVE (1958)

Sortzez Lehuntzarra, Heletan kokatua, ofizioz erakaslea, prosan ere ari zaigu. Baina olerkian zuen Azkue saria irabazi 1984-an, "Ordu alferren segida" izeneko liburuarekin. Idazle fin, argi eta garbia.

SUA

Amorio, amorio,
zure adoratzaile nasaia
izana naiz anitzetan.
Bainan behar dut aitortu,
nauzula aldi honetan,
bihotzcraino larrutu.

Zuck
orroimen efemeroak
iduzki gorrian
ene ihizi bakarrak.

Uda minean
aspalditik nago
hauts egina

Arratsaldeko argi dorpean
erleak erne dabilta.
Zama ezin jasan, denek
jende ala abere,
itzala bilatzen.

Haize hegoak
ahurrean bildua
lur egarria

Ene malenkonია,
harezko erresuma,
jastatu ote dut
hire bizkarraren ederra?
Nagok ez dudanez
hire baitan dalgu
gelditzen zitzaidan
izariapurra.

Larre honen iratzean
sugeak bilduak dira
larrua berritzerakoan
ezin egonak bait dira

Poeta aratza dugu halaber hunen homonimoa den Junes CASENAVE-HARIGILE, zuberotar apaiza, Santa-Graziko semea. Baina pastoralari emana da gehienik literaturan, beste euskal lanak oro aipatu gabe: 7-8 baditu idatziak, hiru publikoan emanak ere, denetan ederrena delarik, bere ta ene ustez, IBANETA: pastoralaren gailurra dela uste dut. Antzerki da pastoraia: har gatik ez ote da olerki ere, bereziki Casenave batek idatzia delarik? Badut uste!

Bide nabar oroitaraz dezadan bere aldetik bederatzi pastoral idatzirik utzi dizkigula Etxahun-Irurik, eta denak publikoan eman izan zirela. Baina lasai! Berantago hasia dugu Casenave. Arras berriki AGERGARAY muskildiarra/eta (Oihenart) BEDAXAGAR urdiñarbetarra (Xaho).

Itxaro BORDA (1958)

Amikuze Oragarre herriko alaba, arras gazterik idazten hasia, prosan asko ari da. Baina olerkian zaigu lehenik azaldu publikoan. Jite aberatsekoa, idazle oparoa eta jadanik esperientziaduna, gai, forma eta hizkuntzaren aldetik. "MAIATZ" literatura aldizkariaren inguruan ari da batipat.

GAUETAN BADIRA (1981)

Gauetan badiera amets hain lasaiak:
haritzen artean, belarren bustian,
bazterrak harrotuz ur berde nasaiak
marmarikan deman kanta eguzkian...

Eguzki argitan amets hain segurra
eder ezak eder auzoko erreka,
lehenago nola —faltaren gezurra—
sendi dezadan gaur uraren pereka!

Iturri agorren hautsaren egarriz
ahantzi nahiak gogorat ekarriz
nondik hator, nondik amets hain nerca?

Min egiten didak, utz azkik joanak
creman ditzala denbora doanak
habil otoi, habil amets hain nereak!

GU (1982)

Norbaiten bizian garen ixtripua,
Huts handi bat eta hala ez beharra,
Euritik landa den lohizko zipua
Edo xendretako harrizka meharra,

Ez dute irrik, begirik, oihurik,
Gu gabe mundua berdin lizateke:
Inutil gabiltza eskuak loturik,
Ustea itxura, sinestea neke...

Biltzen ditugula besteren ondarrak
Urteak ixurtzen dira errautsetan
Hilez betirako hor zorion garrak,

Eta azken hatsaz bularren zokotik
Gure pizu latzak, airatuz hautsetan,
Kentzen gaitu laster geroen gogotik.

Manex LANATHUA (1943)

Garaziko Ahatsa herrian jaioa, mendien altzoan bizi, zurgina dugu Manex adiskidea. Olerki laburrak zitzukatzen ditu amoroski, eskulpitzen ditu gure kapera xaharretako saildu maitagarri eta miresgarriak bezala. Luzeak ere antzen ditu, bertsu librotan, Erdoçaincy-Etchart zenaren antzera.

ETXEKO ERLANDA

Doluzko arropak,
jantziko ditut,
doluzko egun hartan;
Ezkoa eskuan,
boneta bestean,
agur diozut,
etxeke erlanda,
erlanda maitea.

Aitatxiren aitatzitik,
bezala,
bere ordu hartan,
zango bat lurtean,
bestea zeruan,
zuri noakizu,
etxeke erlanda,
mendiko lilien,
gerezi gorrien,
dantzari trebeen,
egiazko plaza;
erlanda maitea,
zuri noakizu, zuri hizketan.

Entzun solas hau,
entzun, zuek erleek,
nire desgrazia;
ikus,
ikus zuek erleek,
daukaten beztia,
doluzko jantzia,
arropa beltz hau,
eta,
begien bustia.

Aitatxi bezala,
ni ez nator hemen,
zuek agurtzeko,
zahartu ornen zen;
hogoi urte ditut,
ez ongi kunplitu,
eta jadanikan,
chorzketen kantan,
nik Herriko seme
lur honen maitale,
larruen dardaran,
letainen karraskan,
agur diozuet,
adio derauzuet,
etxeke erlandak,
erlanda maiteak.

Herritik banoa,
chorzketen kantan,
arropa beltzetan.

Auxtin ZAMORA (1943)

Senpertar hau, “berrogei ta hiru urteko idazle gazte bat” dugu 1986.an Berant hasia, publikoan behintzat, haurtzaroko baratzetan dabila miretsirik.

ELGARRI MUSUKAN

Oraintxet berean, zirimoletan,
sortu gira besta huntan,
iduzki deno dantzan,
ilargi deno irri nigarretan,
bakarrik, iluna hurbiltzean,
lokartuko gira elgarri musukan.

Biziaren mainatak eta lakaioak gira,
 subandaden ufatzaleak,
 ingumeri gatz eta biperraren zerbitzaleak,
 izarihintzeri “maite zaitut” xuxurlatzaleak

suge mahatsen denbora,
 zoin den laburra,
 gure ametsen barneko inkaminak,
 zoin diren hegalez beteak,

zurunbidetan, Mahuma xuriak,
 erortzeko minarekin,
 trebukatu dira,
 eta, xekale landetan,
 birbiratu, galetsien irudiak,

oraintxet berean, zirimoletan,
 sortu gira, besta huntan,
 iduzki deno dantzan,
 ilargi deno irri nigarretan,
 bakarrik, iluna hurbiltzean,
 lokartuko gira, elgarri musukan...

Jean-Louis DAVANT IRATÇABAL (1935)

1957-tik idazle militantea, olerkian berant hasia naiz ni ere, 1980-an.
 Gaiak: haurtzaroko oroitzapenak, naturaleza, maitasuna, biziaren zentzua, Euskal-
 Herriko borrokak.

MAITEA

Zure desiren seme, haien betegarri,
 Zuri agradatzeko ispillu egarri
 Ni naizen bezalako moldatu neraizu
 Zurea naizelako nik maite zaitut zu.

Urrundik asmatua desertuen ate
 Baratze izkutua, mendiko elurra
 Erbestetik auhenez irabazi lurra
 Nerea zarelako nik zu zaitut maite.

Beste urdinik ez dut, ez dezaket aurki
 Nehon ez dut ikusi eta ez dut nahi
 Enetzat hain egoki besterik ez duzu
 Bakarra zarelako nik maite zaitut zu.

Sagar gorria zara belardi hezean
 Itsas uhin usaina goizeko haizean
 Zure biloez dizit arpegia bete
 Bizia zarelako nik zu zaitut maite.

Haritzean ostoa bezain orlegia
 Zaitudala ni baitan derraizut egiaz
 Baldin eror bazinte hila nindukezu
 Hilkorra zarelako nik maite zaitut zu.

Nerrea zarelako eta ni zurea
 Bizia ta hilkorra, bakarra ordea...
 Agian hortako da edo alderantziz,
 Hortaz axolik ez dut eta zer garrantzi?
 Zer gatik arrazainik bila behar ote?
 Zarena zarelako nik zu zaitut maite.

Hau emazte laztana, herri bihotzeko
 Hau aberri maitea nola emaztea
 Amodio berean bat ala bestea
 Betiko ez delako maite dut betiko.

Et'azken orenean begiak hestean
 Soan hartu nahi dut zutaz oroitzeko
 Zurearen zerua tximista batean
 Argazki bat bezala enekin betiko.

HIRUGARREN UHAINA

Uhain berriago bat datorkigu “MAIATZ” agerkariaren ingurutik: izenak ugari agertzen zaizkigu, denak ezin aipa. Baina bazter ezin utziak baditugu: Lucien ETXEZAHARRETA, Henriette AIRE (Xalbador zenaren alaba), Madi PELOT, Marikita TAMBOURIN, Aurelia ARCOCHA... Jada idazle konfirmatuak, nahiz ez merezi luketen bezain ezagun eta kontsagratuak...

Gazteagoak ere datozkigu: Ellande ARANDIA Baionesa, Jakes AHAMENDABURU Eihalartarra, euskara batuan hizkuntza aberats batez jabetua jadanik...

Ez ditut ahanzten oraiko bertsulariak: lehengoak bezain onak dira ene ustez, eta beti hobetuz joaki: gure mundua bezala, konplikatzen ari zaizkie gaiak, aberasten kultura ereduak, mailez goratzen helbururak eta hizkuntza. Baina olerki idatziaz da ene lan hau, beraz bazter utzi behar dut ahomihizkoa, denek uler dezaketen bezala.

HEGAL GARDENAK

Uhain beltza
 itsasotik jalgi denean,
 kurutzearen seinaleak
 agertu dira ateetan.

Tximeletaren hegal gardenak
 zain finez estaltzen.

Karrikak hetsi dituztenean
 etxeak miatu
 haurrak ere eraman
 gure buruari galdetu diogu
 ea Biziaren liburuan
 markatuak ote ginenez.

Larrosaren petalak daldaraka
 ihintzari idekitzen.

Egunsentiaren lehen pindarrari buruz
 kanoiak emeki itzuli direnean
 ixiltasuna hustu denean
 dugu jakin
 bigarren heriotza ere
 aspaldidanik ukatua zigitela.

Ibaiaren mirail leguna
 gero altzairuzkoak isladatzen.

Aurelia Arcocha

ZIN EGIN URRATZE

Zin negien
 herria maitatzea
 euskera sakontzea

Zin negien
 txakurrak uhatzea
 iraultza sustatzea

Zin negien
 maitea laztantzea
 umea babestea

Zin negien
 ginarrak tinkatzea
 negar ez egitea

Zin negien
 alaia bilatzea
 mundua asmatzea

Ilargi zaharretako
 itzalgune trinkoak
 susmo gaixto uneak
 han zegozkidan lekuko

...bihotz okuluak
 betikotz nereak...

Jakes Ahamendaburu

Ikus dezakegun bezala, ez da beraz hain eskasa ipar aldeko poemagintza. Euskal literaturari sortzea eman zion eskualde hunek, bi mendez alor bikain horretan nagusi egonez. Ohitura ez du galdua. Euskara gozoan idazten da hemen, arbasoen erro sendoari txerto berriak enpeltatuz. Ipar aldearekin kondatu beharko da olerkian ere!

BIBLIOGRAFIA

1. Bernard ETXEPARE: "Linguae Vasconum Primitiae" Edizio Kritikoa, Patxi ALTUNA-k paratua, 1980, Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak, 2.
2. Bernard GASTELUCAR: "Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac", Edizio Kritikoa, Lino AKESOLO-k paratua, 1983, *Euskaltzaindia*, Euskararen leukoak, 8.
3. Joannes ETCHEBERRI: "Noelak eta kanta espiritual berriak", Lino AKESOLO-k berrikusiak. *Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S. A.*, Urbieta 55, San Sebastián, 1970.
4. OIHENARTE: "Atsotitzak eta neurtitzak", LARRESORO-k, prestatua, Herri-gogoa, Donostia, 1971.
—Ikus ere "A. d'OIHENART" pastoralara, Arnaud AGUERGARAY-BORDAXAR Muskildiarak idatzia, *Muskildiko herriak 1985-ean emana*.
5. Beñat MARDO: "Gure Herria", 1950, pp. 293-299, Pierre LAFITTE: "Deux Chansons de Beñat Mardo".
—"Gure Herria", 1967-ko Hazila. Louis DASSANCE: "Chronique de la chanson basque: à propos de Beñat Mardo".
6. "AMODIOZKO BARATZETAN". Dominique PEILLEN: "Gure Herria", 1962. Maiatz-Ekaina.
7. Salvat MONHO: "Poèmes basques de ...présentés, transcrits, traduits et annotés par Pierre LAFITTE, de l'Académie basque, Editions *Ikas*, Musée Basque, rue Marengo, 64, BAYONNE, 1972.
8. ETXAHUN BARKOXE: "L'oeuvre poétique de Pierre TOPET-ETCHAHUN". Jean HARITSCHELHAR, Euskera XIV-XV, 1969-1970, *Euskaltzaindia*, Bilbo.
— Jon ETXAIDE-ITHARTE: "Etxahunen lanak, batuan ere ta gaztelerera itzulirik", Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País batasuneko separata andana batetan, Donostia.
—Xipri ARBELBIDE: "Pierra Topet Etxahun", Elkar, 1987.
9. J. B. ELISSAMBURU: Antonio M. LABAYEN: "Elizanburu - Bere bizitza ta lanak", *Auñamendi*, 124, Donostia, 1978.
—F. B. LARZABAL: "J. B. Elissamburu eta Oxalde, bi 'gorri' " Iker-2, 323-338 orr. *Euskaltzaindia*, 1983.
10. Gratien ADEMA, ZALDUBY: *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Literatura, I, II.
—RIEV, 1908, 1909.
11. Jean BARBIER: "Xaramela", Elkar, 1985.
12. Jules MOULIER, OXOBI: *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Literatura III, 363-364 or.
—"Oxobi-ren lan orhoitgarri zenbait", "Gure Herria"-k agertarazirik, Baionan, 1966.
13. Jon MIRANDE: "Orhoituz" (Poema guztiak). Adolin EGUZKITZA-k prestatuturiko agitaraldia - *Kriselu*, 1976.

14. Xavier DIHARCE, IRATZEDER: "Pindar eta lano, Zeru-menditik, Argiz argi, Uhaineri nausi, eta abar...", *Editions Ezkila*, N. D. de Belloc, Urt, 64240 - Hasparren.
15. Pierre BORDACARRE, ETXAHUN IRURI: "Etxahun-Iruri khantan", Agertarazlia Jakes LARRONDO, I.P.A. inprimeria, Pauen, 1977.
16. Ferrando AIRE, XALBADOR: "Odolaren mintzoa", *Auspoa*, 1976.
17. Manex ERDOÇAINCY-ETCHART: "Hinki-hanka", *Elkar*, Pannecau 52, Baiona, 1980.
— "Herri hunen erraietan", Maiatz, 1986. (Ikus beherean: 26 - MAIATZ).
18. Itxaro BORDA: "Bizitza nola badoan", Maiatz, 1984.
19. Jon CASENAVE: "Zutaz amoroski".
— "Ordu alferren segida - Azkue saria 1984-an", *Bilboko Aurrezki Kutxan*.
20. Manex LANATHOUA: "Kilim, okabeko ganak", Maiatz, 1987.
21. Auxtin ZAMORA: "Ezin errana", Maiatz, 1986, Uhargi sailean.
22. Jean-Louis DAVANT: "Makila gorria", *Elkar*, 1980.
— "Itsasoak iraultzan", Maiatz, 1986: aipamen berezia 1980-eko Azkue sarian.
— "Denboraren aroak", Azkue saria, 1981-ean, *Bilboko Aurrezki Kutxan*.
— "Nahi gabe", Xalbador saria 1985-ean, *Iruñako Aurrezki Kutxan*.
— "Abadia Urrüstoi", pastoral, sari berezia Durangoko euskal jaietan, 1986-an.
23. Manex PAGOLA: "Biziaren altzotik", 1988, *Soci t  des Amis du Mus e Basque*, 1 Marengo karrika, 64100 - Baiona.
24. "Euskal alfabetatzeko literatura", Enrike ZABALA, *Editorial PAX* argitaletxea, Lazkao, 1979.
25. "Ipar aldeko euskal idazleak", antologia, K. Etxe-nagusia, Bilbo, 1981.
26. MAIATZ Batasuna: "15 Pontrique karrika", 64100 - Baiona. Tel. 59 59 86 33.
— MAIATZ aldizkaria: "Literatura agerkaria, urtean hiruzpalau aldiz karrikatzen da". Zenbakia: 25 FF edo 500 pta. Urteko harpidetza: 90 FF edo 1800 pta. Banco de Bilbao: konduaren zenbakia, 20007014004.